

Toledoko Hitzarmenaren ondoren, ongizate-maila esku pribatuetan

J. Iñaki De La Peña
EHUko irakaslea

Espainiako Gizarte-Segurantzan egindako berrantolaketak jaitsi egingo du erretiroagatiko prestazioaren erosteko ahalmenaren parekotasuna. Lan honetan berrantolaketa horretan gertatutako aldaketarik garrantzitsuenak aztertuko ditugu eta, era berean, pentsio-planetan eta fondo pribatuetan duten eragina neurtzen saiatuko gara.

Hain zuzen ere, erretiroa hartzeko adin arruntaren atzerapena aztertuko dugu, erretiro atzeratuak pentsio-plan pribatuetan zer-nolako eragina duen ikusteko. Baina, kasuan kasuko neurriak hartuz gero, erretiroagatiko prestazioaren berrantolaketaren efektu kaltegarria murriztu egingo da.

The Spanish Social Security Reform decreases gradually the buying power of the retirement benefits to be received by current workers. In this paper we analyze the most significant changes that have taken place regarding this reform, and we also analyze their influence on the private pension plans.

We also include the influence that other measures, particularly the delaying of the normal retirement age of civil servants may have on these private pension plans, reducing the negative effect that the undertaken reform has for the retirement benefit.

1. Sarrera

Azkeneko urteotan aldaketa nabariak izan ditugu gure herrian Gizarte-Segurantzaren, etorkizuneko bere finantzazioaren egoera tamalgarria ikusita. Aldaketa horietariko batzuk aztertuko ditugu artikuluko honetan, batez ere erretiroagatikoko prestazioari dagokiona.

Aldaketa horiek erretiroagatikoko prestazio publikoan eta osagarriak diren pentsio-pribatuetan izango dute eragina, batez ere Gizarte-Segurantza kontuan hartzen duten pentsio-plan horietan. Aipatutako eragina neurtzeko asmoz metodo aktuarial bi erabiliko ditugu, gure herrian pentsio-planaren munduan gehien erabiltzen diren metodoak hain zuzen. Metodoak honako hauek dira: *Unitcredit* edo urteko metatze konstantea eta soldataren gainean proiektatutako prestazioak. Bi metodo horien eragina ikertzeko kasu batean aplikatuko ditugu.

2. Gaur egungo Gizarte-Segurantza

Gure pentsio publikoaren sistema 1985ean izandako berrantolaketari esker, osasuntsu dago oraindik. Urte horretan erretiroagatikoko prestazioaren oinarri erregulatzailerak kalkulatzeko bi urtetik zortzi urtera pasatu zen. Berrantolaketa horrek ohitura pikaro bati hartu nahi zion aurrea. Ohitura horretan lan-bizitzan zehar kotizazio-oinarri txikiena zuen langileak erretiroagatikoko prestazio handiena izan zezakeen, baldin eta erretiroaren aurreko azkeneko bi urteetan kotizazio-oinarria handitzen bazuen. 1985eko berrantolaketak 8 urtera luzatu zuen kotizazio-epena, eta 1997tik erabiltzen dena 15 urtera ailegatu da. Azken hori, hots, 8 urtetik 15erakoa progresiboa da.

Ikerlari batzuek —entitate pribatuen babesean— Espainiako Gizarte-Segurantzaren etorkizuneko ekonomiaren analisiari ekin diote. Lan horietariko gehienek Gizarte-Segurantzaren pentsio-sistema baino ez dute aztertzen, eta alde batera uzten dituzte maila pasiboak eta pentsio ez-kontributiboak. Halaber, ez dute aztertzen esku pribatuetan dagoen aurreikuspena, 1984tik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoan Borondatezko Gizarte Aurrezaintzako Erakundearen bidez araututa dagoena, 1987tik aurrera Espainian finkaturiko pentsio-planen eta fondoaren legedia dela medio. Azken zati horri ekingo diogu gure lanean.

Orain arte egindako ikerketa guztiek pentsio-sistema publikoaren larritasuna erakutsi dute. Agerian denez, desorekaren araberako ebazpenak eman dira. Eta horietariko batzuk Toledoko Hitzarmenean eta Gizarte-Segurantzaren Sistemaren Bateratze eta Normalizazioaren Legean aurki ditzakegu. Horien bidez, sistema publikoa osasundu nahi da, batez ere, erretiroagatikoko prestazioari dagokionez. Besteak beste, proposatutako ebazpenik aipagarrienak honako hauek dira:

- i) Erretiroagatikoko prestazioaren oinarri erregulatzaileraren kalkulu-aldaketa.
- ii) Ehuneko-eskalaren berrikusketa.
- iii) Aldez-aurretiko erretiroaren baldintza berriak.

Gure lan honetan gertatutako aldaketarik nabarienenak hartuko ditugu kontuan:

a) Erretiroagatiko prestazioa izateko kotizazioaldia

1997an izandako berrantolaketa egin baino lehen langileak 15 urte kotizatu behar zituen, horietariko bi gutxienez erretiratzeko adina baino 8 urte lehenago.

Gaur egungo kotizazioaldia, berriz, 15 urtekoa da, baina horietariko bi gutxienez erretirorako adina baino 15 urte lehenago izan behar du kotizatuta langileak, erretiroagatiko prestazioaren eskubidea izateko.

b) Erretiroagatiko prestazioaren oinarri erregulatzaila.

Oinarri erregulatzaila zenbatasun ekonomiko bat da, eta horren arabera onuradunari dagokion pentsioa kalkulatzeko zaito. Berrantolaketa aurretik, erretiroagatiko oinarri erregulatzailak erretiroaren azken zortzi urteetako kotizazio-oinarriak zati 112 zituen kalkulabide. Era honetan hain zuzen: erretiroaren aurreko 24 hilabeteetako (2 urte) kotizazio-oinarriak euren balio nominalean konputatzen ziren. Gainerakoak (6 urte, hots, 25. hilabetetik erretiroaren aurreko 96. hilabetera) Kontsumorako Prezio-Indizeak jasandako eboluzioaren arabera eguneratzen ziren 25. hilabetera arte gehiketa gauzatzeko. Dagokion formula hurrengoa da:

$$OE = \frac{\sum_{j=1}^{24} KO_j + \sum_{j=25}^{96} KO_j \cdot \frac{KPI_{25}}{KPI_j}}{112}$$

non,

OE : Erretiroagatiko prestazioaren oinarri erregulatzaila.

KO_j : Erretirorako adinetik j -garren hilabeteari dagokion kotizazio-oinarria.


KPI_j : j -garren hilabeteari dagokion Kontsumorako Prezio-Indizea.

Gaur egun, ordea, erretiroagatiko prestazioaren oinarri erregulatzaila kalkulatzeko epea luzatu egin da, langilearen erretiroaren aurreko 15 urteko kotizazio-oinarriak hartu arte. Hau da, erretiroaren aurreko 180 hileko kotizazio-oinarriak hartzen ditu kontuan: erretiroaren aurreko 24 hilabeteen (2 urte) kotizazio-oinarriak euren balio nominalean konputatzen dira eta gainerakoak (13 urte, hots, 25. hilabetetik erretiroaren aurreko 180. hilabetera) Kontsumorako Prezio-Indizeak jasandako eboluzioaren arabera eguneratzen dira, 25. hilabetera arte gehiketa gauzatzeko:

$$OE = \frac{\sum_{j=1}^{24} KO_j + \sum_{j=25}^{180} KO_j \cdot \frac{KPI_{25}}{KPI_j}}{210}$$

non 25. hileko kotizazio-oinarritik hasita 180. hilabetea kotizazio-oinarrira eguneratzen diren erretiroaren 25. hilabetera arte.

1. laukia. Oinarri erregulatzailearen eboluzioa hartutako kotizazio-urteen arabera.



Dena dela, bitarteko aldi bat egon badago aurreko oinarri erregulatzailearen formula indarrean egon arte, 2002ko urtarrilaren 1ean, hain zuzen. Data horretara ailegatu arte ondoko urteak hartu dira kontuan oinarri erregulatzailea kalkulatzeko:

1997. urtean \Rightarrow 9 urtetako kotizazio-oinarriak

1998. urtean \Rightarrow 10 urtetako kotizazio-oinarriak

1999. urtean \Rightarrow 11 urtetako kotizazio-oinarriak

2000. urtean \Rightarrow 12 urtetako kotizazio-oinarriak

2001. urtean \Rightarrow 13 urtetako kotizazio-oinarriak

2002. urtean \Rightarrow 15 urtetako kotizazio-oinarriak

c) Pentsioaren zenbatasuna.

Gizarte-Segurantzaren erretiroagatiko prestazioaren kalkulua (*GSEP*) aurreko oinarri erregulatzailearen eta ehuneko (*k*) baten arabera kalkulatu da.

$$GSEP = k \cdot OE$$

1997ko berrantolaketa aurretik ehunekoa era honetan kalkulatu zen: langileari gutxieneko kotizazioaldia betetzean (15 urte) %60 ematen zitzaion eta gainerako urte bakoitzeko %2 gehiago, ehuneko %100era ailegatu arte. Azken hori 35 urte kotizaturik izatean lortzen zen.

$$k \in \text{Min} [\%100; \%60 + \%2 \cdot (UK - 15)]$$


non UK Eraentza publikoan kotizaturiko urteak diren (15 urte baino gehiago, erretirogatiko prestazioaren eskubidea izateko).

Gaur egun ehunekoa kalkulatzeko era aldatu egin da. Hori dela eta, langileak kotizatutako gutxiengo urte kopurua betez gero (15 urte) %50 emango zaio. Kotizatutako gainerako urteengatik kopuru ezberdinak emango zaizkio, urte-korporuaren arabera. Hain zuzen, 16 urtetik 25 urtera urte bakoitzeko %3 eta 25 urtetik 35 urtera urte bakoitzeko %2 gehiago, %100 bete arte. Ehuneko osoa lortzeko 35 urteko kotizazioa gauzatu behar du langileak, berrantolaketaren aurretik zegoen urte-kopuru bera, alegia.

$$15 \leq UK \leq 25 \Rightarrow k = \%50 + \%3 \cdot (UK - 15)$$

$$25 \leq UK \leq 35 \Rightarrow k = \%80 + \%2 \cdot (UK - 25)$$

2. laukia. Erretirogatiko prestazioaren ehunekoaren eboluzioa, erabilitako legediaren eta hartutako kotizazioaldiaren arabera.



d) Erretiro aurreratua.

1997ko berrantolaketaren aurretiko baldintzak mantendu egin dira erretiro aurreratua lortzeko, baldin eta langilearen adin aurreratua 60 eta 65 urte artean badago eta 1967ko urtarrilaren 1a baino lehenago egun bat gutxienez kotizaturik bazeukan. Kasu hori betetzen dutenei, erretiroaren adin arruntean oinarrituta, aurreratze-urte bakoitzeko %8 murrizten zaie erretirogatiko prestazioa.

Gaur egun beste kasu berri bat hartu da kontuan erretiro aurreratuan. Kasu berri hori Gizarte-Segurantzaren Eraentza Publikoan euren lan-bizitzan 40 urte edo gehiago kotizaturik dituzten langileei zuzenduta dago. Langile horiei aurreratze-urte bakoitzeko %7 murrizten zaie erretirogatiko prestazioa.

e) Erretiro atzeratua.

Espainiako gobernua erretirorako adin-atzerapenaren aukera aztertzen ari da. Gaur egun aukera hori errealitate bihurtu da irakasle funtzionarioentzat. Aipatutako erretirorako adina borondatez atzeratzen da, 70 urte bete arte. Adin aurreratua-rekin konparatuz gero, berrantolaketa honen eraginak, zentzu guztiz kontrakoa du.

Erretirorako adin-atzerapenarekin batera Espainiako Gizarte-Segurantzak ez du kontuan hartu oinarri erregulatzaileren gaineko ehunekoa igotzeko eskubidea prestazioa kalkulatzeko. Erretiroa atzeratzearen kasuan erabiliko diren formulak adin arrunteko erretiroarenak izango direnez, hurrengo ataletan aztertuko dugu kasu hau.

f) Pentsioen eguneratzea.

Orain arte gobernuak hurrengo urterako kontsumorako prezio-indizearen arabera eguneratu ohi ditu pentsioak, urteko Estatuaren Aurrekontuetan agertzen denez. Eguneratze automatiko horren legeztapenak pentsiodunen erosteko ahalmenaren parekotasuna mantentzeko bermea du.

g) Lanean jarraitzea.

Gobernuak 65 urtetik gora lan egingo dutenentzat zerga jaitziera legeztatuko du, baldin eta 65 urterekin erretiroagatik prestazioaren eskubidea badaukate. Puntu hau sindikatuekin eta enpresetako elkarteekin eztabaidatzeko izango da, batez ere erretiroa hartzeko dauden langileak ordezkatu ezean, gizartean eta ekonomian izan litzakeen eraginak.

3. Epe labur/ertaineko nondik norakoak

Gizarte-Segurantzaren Sistemak lehenengo urratsa eman du langilearen lan-errealitatea prestazioaren sistemara hurbiltzeko asmoz. Horren lekuko ditugu aurreko atalean azaldutako erretiroagatik prestazioaren gaineko berrantolaketak.

Dena dela, aipatutako berrantolaketak ez dira eten behar. Gizarte-Segurantzaren moldaketak eta normalizazioak bere bidea jarraitu behar du; eta, esate baterako, lan-atal batzuetan, unibertsitateko irakasleenean adibidez, aldaketa nabariak jaso dituzte erretiroagatik prestazioari dagokionez. Lan honek erakutsiko digu zein izango den gainerako langileen etorkizuna, erretiroagatik prestazioari dagokionez.

a) Urte kotizatu bakoitzeko erretiroagatik prestazioaren ehunekoa gutxitzeko asmoa.

Gaur egun langileak erretiroagatik prestazioaren oinarri erregulatzaileren %100 lor dezake, 35 urte kotizaturik badauzka, honako hiru mailen bidez:

- Lehenengo maila finkoak oinarri erregulatzaileren %50 ematen du Gizarte-Segurantzaren kotizatutako hasierako 15 urteetan.
- Bigarren maila mugikorra %30era arte ailegatzen da kotizatutako hurrengo 10 urteetan.

- Azkeneko maila mugikorrek kotizatutako azken 10 urteei %20 ematen die, urte bakoitzeko %2 izanik.

Agian, geroari begira, sistemak ezin izango du oinarri erregulatzaileraren %100 eman, erretiroagatiko prestazioaren oinarri erregulatzaileraren %90 edo %80 baizik, langileak 35 urte kotizatuta izan arren.

b) Oinarri erregulatzaileraren kotizazioaldia gehitzeko asmoa.


Erretiroagatiko prestazioaren oinarri erregulatzaileraren kalkulua azkeneko 8 urteetako hileko kotizazio-oinarriak hartzetik, erretiro aurreko 15 urteetako hileko kotizazio-oinarriak kontuan hartzera pasatu da; azken hori 2002tik aurrera izango da indarrean. Orain arte, 8 urteko hileko kotizazio-oinarriak gehitu dira, berrantolaketa zeharo indarrean jarri arte.

Langile gehienei oinarri erregulatzaileraren zenbatasuna gutxitu egingo zaie, soldataren igoerak inflazioak (kontsumorako prezio-indizea) baino eboluzio handiagoa du eta.

Beharbada, hurrengo urratsa kotizazioaldia handitzea izango da; esate baterako gaur egungo 15 kotizazio-urteetatik 25 kotizazio-urtetara edo, agian, langilearen lan-bizitza osora. Azken horrek bizitzan zehar gauzatutako kotizazioaren arabera prestazioa emango lioke langileari, Europako hainbat herritan gertatzen den legez.

Aipatutako kasu horrek oinarri erregulatzaileran eragin handia izango luke, langilearen lan-bizitzan zehar kotizaturiko hainbat kotizazio-oinarri ezberdin (oso txikiak lehenengo urteetan, lan-uzteak, langabeziako egoerak, etab.) hartuko bailituzke kontuan.

3. laukia. Oinarri erregulatzailerak kalkulatzeko erabiliko diren kotizazio-oinarrien kopuruaren arabera pentsioaren eboluzioa.



c) Erretiro aurreratua.

Gaur egun indarrean dauden baldintzak ikusita 65 urte bete baino lehenago erretiroa hartzeko aukera lan-talde oso zehatzetan murriztu egingo da:

- i) Gero eta langile gutxiagok izango dutelako egun bat guxienez kotizaturik 1967ko urtarrilaren 1a baino lehenago. Horren ondorioz, ezin izango dute erretiro aurreratua hartu, indarrean dagoen legeraren arabera.
- ii) 1997ko berrantolaketaren ondorioz, 40 urte kotizaturik izatea eskatzen da erretiro aurreratua lortzeko; baina kotizazio-baldintza hori ametsa baino ezin da izan, kontuan hartzen badugu gazteak lanean hasteko epean atzerapen handia dagoela, lan eskasa dela eta, langabezia oso altua delako edo beste arrazoi batzuenengatik.

Erretiro aurreratuagatiko prestazioa jasotzeko, baldintza hori beteko luketen langileen kopurua gutxituz joango da. Ondorio gisa, bere eragina ez da garrantzitsua izango etorkizun hurbilean.

Are gehiago, Gizarte-Segurantzak pentsioen normalizazioa bilatuko balu, etorkizuneko arazo ekonomikoak baztertzeko asmoz, erretiro aurreratuak sorrarazten dituen finantza-aktuaritza arloko honako arazo hauek kontuan hartu behako lituzke.

- i) Sistemarako diru-sarreraren aldia laburtu egiten du erretiro aurreratuak.
- ii) Prestazioaren ordainketarako balizko aldia luzatu egiten du erretiro aurreratuak.

Gizarte-Segurantzak bi arazo horiek ekidin nahi ditu sistemaren osasun ekonomikoa izateko epe labur/ertainean.

d) Pentsioen eguneratzea.

Gaur egun, hurrengo urterako izango den kontsumorako prezio-indizearen arabera da. Horrela pentsiodun guztiei euren erosteko ahalmenaren parekotasuna urtero mantentzen zaie. Hala eta guztiz ere, kopuru handiko pentsio batzuei kontsumorako prezio-indizearen igoera baino txikiagoa aplikatu lekieke, esate baterako aurreikusitako kontsumorako prezio-indizearen %75eko igoera, sistema laguntzeko helburuz. Bestalde, gutxieneko soldata baino kopuru txikiagoko pentsioak egon badaude, baina, gure ustez, gutxieneko soldataren maila izan beharko lukete.

Eguneratze partzialaren neurri hauek emaitza onak eman litzakete sistema laguntzeko, baina gizarteak nahiz sindikatuek gaitzetsi egingo lituzkete, onuradunen eta langileen eskubideak murriztu egingo lirateke eta.

e) Lanean jarraitzea.

Alde batetik erretirorako adin arrunta 65 urtekoa baldin bada, benetako erretirorako adina 62 eta 63 bitartean suertatzen da, eta horrek langileen eta onuradunen arteko desoreka larritu egiten du.

Beste alde batetik, Euskal Herriko Unibertsitateko Finantza - Aktuaritza Ikerketarako Institutuaren ikerketen arabera Euskal Autonomia Erkidegoan erretiroa hartzeko joera 60 eta 61 urteren artean dago. Izan ere, erretiro aurreratuen onuradunaren postuan langile gazte eta berriak sartzen direnean, enpresak laguntza fiskalak jasotzen ditu.

Sistema orokor honen salbuespena unibertsitateko irakasleak ditugu, langile hauek erretiroaren adin arrunta 70 urtera atzera badezakete borondatez. Beharbada, unibertsitateko irakasleei zuzendutako ezaugarria lan-sektore guztietara zabaltzea komenigarria izango litzateke (sektore batzuei ezinezkoa gertatuko litzateke, dagozkien lan-ezaugarriak oso gogorak edo bereziak direlako), horrela sistema publikoaren arazo batzuk arindu egingo bailirateke, adibidez, honako hauek:

- i) Sistemara zuzendutako kotizazioaldia gehitzea.
- ii) Prestazioak ordaintzeko denbora probablea murriztu egingo litzateke
- iii) Pentsiodunen etxebizitzarako gastuak gutxitu egingo lirateke.

Dena dela, den-dena ez da abantaila izango. Aurrekoak mende honetako arazorik larrienetariko bat larrituko luke, gazteen langabeziarena hain zuzen.

4. Pentsio-planak eta Gizarte-Segurantzaren berrantolaketa

1984tik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikuspeneko planak Borondatezko Gizarte Aurrezaintzako Erakundeen bitartez antolatu ziren. Espainian, ordea, pentsio-planak eta fondoak geroago legeztatu ziren, 1987an hain zuzen. Horiek Gizarte-Segurantzaren Sistema Publikoarekin eta Bizitza-Aseguruekin batera, herritarren aurreikuspeneko maila ematen digute.

Gizarte-Segurantzari buruzko 1997ko berrantolaketak Gizarte-Segurantzaren dauden langile onuradunengan, zein pentsio-planen barruan dauden parte-hartzaileengan eragin handia dauka.

Eraentza Publikoaren etorkizuneko joerak bete beharreko aurreikuspena nahiz aurreikuspen osagarria aldaraziko ditu, izan ere, berrantolaketa honek ez du konputuan hartu indarrean dauden pentsio-planen eragina gizakiengan zein ekonomian.

Artikulu honetan Gizarte-Segurantzaren berrantolaketak aurreikuspeneko sistema osagarrian duen eragina aztertuko dugu, batik bat, kasu hauei dagokienez:

- a) Gizarte-Segurantzaren erretiroagatiko prestazioaren oinarri erregulatzailearen kalkulu-aldaketa.
- b) Erretiroaren atzeratze-adinaren eragina.

Neurri hauekin Sistemak argi eta garbi utzi ditu bere nahiak: Sistemaren sartuko den kotizazio-dirua gehitzea eta prestazio ekonomikoaren balizko iraupena murriztea bi faktoreen bidez:

- i) Ekonomikoa, oinarri erregulatzaileraren zenbatekoa murriztuz.
- ii) Biometrikoa, adinean aurrera joan ahala bizi-itxaropena laburtuz doalako. Orduan onuradunei ordaintzeko balizko epea ere murriztu egingo da.

5. Pentsio-planaren eragina: ikerketa praktikoa

Arestian azaldutakoa ageri-agerian uzteko asmotan, atal honetan Gizarte-Segurantzaren erretiroagatiko prestazioaren aldaketak pentsio-plan batean duen eragina neurtuko dugu, honako hiru kasu hauek aztertuz:

- i) Lehenengo kasua: ez dago aldaketarik.
- ii) Bigarren kasua: Gizarte-Segurantzaren erretiroagatiko prestazioaren oinarri erregulatzaileraren aldaketa.
- iii) Hirugarren kasua: Gizarte-Segurantzaren erretiroagatiko prestazioaren oinarri erregulatzaileraren aldaketaz gain, 70 urte bete arteko erretiroaren atzerapena hartuko dugu.

Orain arte esandakoa gauzatura ikusteko, kasu bat aurkeztuko dugu: pentsio-planeko parte-hartzaile batek aldaketak jasan eta gero, bere erosteko ahalmenaren parekotasuna mantendu nahi du.

5.1. Datuak eta hasierako hipotesiak

Parte-hartzailearen datuak honako hauek dira:

i) Datu biometrikoak:

- Sexua: Gizonezkoa.
- Gaur egungo adina: 45 urte.
- Planean sartze-adina: 30 urte.
- Erretirorako adin arrunta: 65 urte.
- Erretirorako adin atzeratua: 70 urte.

ii) Datu ekonomikoak:

- Gaur egungo urteko soldata: 35.000 .
- Urteko ordainketak: 14; horietariko 12 hilero jasotzen ditu, gehi sei hilabeteroko ordainketa bi. Denek kopuru berbera daukate.

iii) Hipotesi biometrikoak:

- Hilkortasun-taulak: GRM – 95, suitzarrak.
- Ez dago beste irteerarik indarrean dagoen planetik.

iv) Hipotesi ekonomikoak:

- Urteko interes-tipo tekniko konstantea: %4
Indarrean dagoen Legearen arabera, horixe dugu pentsio-planean eta fondoetan erabiliko den gehieneko urteko interes-tipoa.

- Urteko Kontsumorako Prezio-Indize konstantea: %2
- Urteko soldataren igoera konstantea: %2,5
- Urteko pentsioen igoera konstantea: %2
Igoera hori Gizarte-Segurantzaren pentsioei eta pentsio osagarriei aplikatuko zaie.

v) *Kostuak kalkulatzeko erabilitako metodoak:*

Adibide honetan honako bi metodo hauek erabiliko ditugu:

- *Unitcredit* edo urteko metatze konstantea, parte-hartzailea pentsio-planean sartu zenetik.
- *Soldataren gaineko prestazio proiektatuak* parte-hartzailea pentsio-planean sartu zenetik.

5.2. Lehenengo kasua

65 urte duen parte-hartzaile baten aurreikuspenerako planaren erretiroagatik prestazioaren emaitzak emango ditugu jarraian.

Gizarte-Segurantzaren berrantolaketa kontuan hartzen ez badugu, 65 urtetik aurrera jasoko duen prestazio osagarria (B_{65}), bere erosteko ahalmenaren paretotasuna mantendu nahi badu, erretiroa hartuz gero, ondokoa izango litzateke:

$$B_{65} = s_{65} - GSPE_{65} = 57.351,58 - 54.432,92 = 2.918,66$$

non,

s_{65} : Hasierako hipotesiak beteko balira, erretiratzeko adinean langileak izango lukeen urteko soldata.

Jasoko litzuzkeen pentsio-osagarrien balio eguneratua ($POBE$) gaur egun (45 urte dauzka parte-hartzaileak) honela dator emanda:

$$(POBE)_{45} = B_{65} \cdot Va(I; 1,02)_{65}^{(14)} \cdot {}_{20}E_{45} = 18.547,01$$

non,

$Va(I; 1,02)_{65}^{(14)}$: Bizi osorako errentaren balio aktuarial eguneratua, postordainkorra, hileroko (12 ordainketa) eta sei hilabeteko (2 ordainketa) izango dituen; 65 urtetik aurrera ordaintzeko, eta ordainketa horiek aldakorrak dira, progresio geometrikoan dagokion arazoia 1,02 izanik.

${}_{20}E_{45}$: Unitate bateko eguneratze aktuarial faktorea 65 urtetik 45 urtera.

i) *Urteko metatze konstantea (UMK).*

Metodo honen arabera ezarpen normala (EN) parte-hartzailearen planean sartzeko adina 30 urte denean ondokoa izango dugu:

$$EN_{45} = \frac{(POBE)_{45}}{65 - 30} = 529,91$$

Adin horri dagokion hornidura matematikoa (HM) izango litzateke:

$$HM_{45} = (45 - 30) \cdot \frac{(POBE)_{45}}{65 - 30} = 7.948,72$$

ii) Soldataren gaineko prestazio proiektatuak (SPP).

Aurreko metodoan kalkulatu izan dugun bezalaxe, parte-hartzaile honen ezarpen normala kalkulatu dugu 45 urte dituenean; dagokion zenbatekoa ondokoa izango da:

$$EN_{45} = \frac{(POBE)_{30}}{s_{30} \cdot (Sa)_{30:35}^{(14)}} \cdot s_{45} = 560,69$$

non,

- s_{30} : Parte-hartzaileak 30 urte zuenean proiektatutako urteko soldata.
- $(Sa)_{30:35}^{(14)}$: Soldata-errenta postordainkorra, bere iraupena 30 urtetik 65 urtera ordaintzeko, urteko 12 ordainketa hileroko eta bi ordainketa sei hilabeteko izango dituenak, denak kopuru berdinak izanik.

Adin horretako soldataren gaineko ehunekoa $k = \%1,602$ izango litzateke.

Dagokion hornidura matematikoa:

$$HM_{45} = (POBE)_{45} \cdot \frac{(Sa)_{30:15}^{(14)}}{(Sa)_{30:35}^{(14)}} = 9.393,65$$

5.3. Bigarren kasua

Atal honetan Gizarte-Segurantzaren erretiroagatik prestazioaren oinarri erregulatzaileraren aldaketaren eragina aztertuko da, eta aipatutako bi metodo aktuariaren arabera pentsio-planaren duen eragina.

Gizarte-Segurantzaren erretiroagatik prestazioaren oinarri erregulatzaileraren arabera (erretiroaren aurreko azken 15 urteetako kotizazio-oinarriak hartuko dituenak), langileak bere erosteko ahalmenaren parekotasuna mantenduko duelakoan, bere pentsio-planaren prestazio osagarria honako hau izango litzateke:

$$B'_{65} = s_{65} - GSPE'_{65} = 57.351,58 - 53.512,34 = 3.839,24$$

Pentsio osagarri berriaren balio eguneratua parte-hartzaileak 45 urte dituenean, honako hau litzateke:

$$(POBE)'_{45} = B'_{65} \cdot Va(1,1,02)_{65}^{(14)} \cdot {}_{20}E_{45} = 24.396,96$$

Kostu-metodo bakoitzari dagokion eragina zehaztuko dugu aurrerantzean:

i) *Urteko metatze konstantea (UMK).*

Erretiroagatiko prestazio osagarriaren zenbatekoa aldatzeak, aktuarialki bermerik gabeko hornidura matematiko gehigarria (HMG) erakarriko luke, eta zenbatekoa ondokoa izango litzateke:

$$HMG_{45} = HM^{AI}_{65} - HM^A_{45} = 5.849,95$$

non,

HM^{AI}_{45} : Aurrikuspen bidearen bitartez kalkulaturako hornidura matematikoa.

HM^A_{45} : Atzeranzko bidearen bitartez kalkulaturako hornidura matematikoa.

Kostu-metodo berbera erabiliz gero benetako finantzaketa izan dadin, urteko ezarpen gehigarria (EG) jarraian dago zenbatuta:

$$EG_{45} = 278,57$$

Urteko ezarpen osoa (EO) $EO_{45} = EN_{45} + EG_{45} = 808,48$ izanik.

ii) *Soldataren gaineko prestazio proiektatuak (SPP).*

Kostu-metodo honen arabera, eraginak bide berbera darama baina, agerian denez, emaitzak ezberdinak dira. Hornidura matematiko gehigarriak bermaturako balio eguneratua baina finantzatu gabea adierazten digu, bere zenbatekoa ondokoa izanik:

$$HMG_{45} = HM^{AI}_{45} - HM^A_{45} = 5.621,11$$

Kostu-metodo berbera erabiliz eta finantzaketa erretirorako adineraino kontuan hartuz gero, urteko soldataren gaineko ehuneko gehigarria (k^g) lortuko dugu:

$$k^g = \frac{HMG_{45}}{s_{45} \cdot (Sa)_{45:20}^{(14)}} = \%1,1182$$

Honek hurrengo urteko ezarpen osoa emango digu:

$$EO_{45} = EN_{45} + EG_{45} = 952,06$$

5.4. Hirugarren kasua

Jarraian Gizarte-Segurantzaren erretirorako adina 70 urte bete arte atzeratzen denean aztertuko dugu, aukeratutako bi kostu-metodoen menpean, beti ere pentsio-planaren prestazioa emanda.

70 urtetik aurrera, pentsio-planean parte-hartzaileari emango zaion prestazio osagarri berria honako hau litzateke:

$$B_{70} = s_{70} - GSEP_{70} = 4.343,74$$

gaurko adinean izango duen prestazio osagarriaren balio eguneratua

$$(POBE)'_{45} = B_{70} \cdot Va(1;1,02)_{70}^{(4)} \cdot {}_{25}E_{45} = 17.885,36 \quad \text{izanik.}$$

Gizarte-Segurantzaren aldaketak zer-nolako eragina duen kostu-metodo bakoitzean ikusiko dugu jarraian, baita dagokion normalizazioa ere.

i) Urteko metatze konstantea (UMK).

Baldintza berri hauen pean hornidura matematiko gehigarriak honelako balioa hartuko du:

$$HMG_{45} = HMAI_{45} - HMA_{45} = -661,66$$

Negatiboa denez, kostu-metodoari dagokion ezarpen normala murriztu egingo dugu, 70 urte bete arte ordainduko baita, hau da, erretirorako adin berrira arte. Urteko ezarpen osoa eta berria

$$EO''_{45} = 402,56 \quad \text{izango litzateke.}$$

Ikusten denez 45 urteko ezarpena nabarmenki murriztu da.

ii) Soldataren gaineko prestazio proiektatuak (SPP).

Kostu-metodo honen bidez hornidura matematiko gehigarri negatiboak (parte-hartzailearen ezarpenak handiegia direlako) honako zenbatekoa izango luke:

$$HMG_{45} = HMAI_{45} - HMA_{45} = -2.887,39$$

Aurrekoak pentsio-planaren normalizazioa eskatzen du, eta horren ondorioz parte-hartzailearen pentsio-planaren ezarpena murriztu egingo dugu, soldataren gaineko ehunekoa ondokoa izanik:

$$k' = \%1,1749$$

45 urteko ezarpena ordaintzean murrizketa galanta nabarituko da:


$$CA'_{45} = 411,21$$

6. Ondorioak

- *Erretiroagatiko prestazio publikoaren oinarri erregulatzaillearen kotizatutako urteen gehiketa.*

Zenbakien bidez zein laukiaren bidez agerian dagoenez, erretiroagatiko prestazioaren oinarri erregulatzaillearen kotizaturiko urteen gehiketak langilearen prestazioa murriztu egiten du, eta horren ondorioz pentsio-pribatuak handitu behar du kopurua, langileak bere ongizate-maila (erretiroaren aurreko soldata gure kasuan) mantendu nahi badu.

4. laukia. I. eta II. kasua.




Estandura publikoaren murrizketak pentsio-plana arlo pribatuan finantzatu beharra dakar, dagokion ezarpen osoa langilearen adinaren arabera eta erretirorako faltako zaizkion urteen arabera izango baita.

Hartutako adibidean (lehenengo eta bigarren kasuei dagokienez), pentsio osagarriaren zenbatekoa hartzen badugu kontuan, ezarpenen gehiketa nabaria da oso.

- *Eraentza publikoko erretirorako adinaren atzerapena.*


Erretiroagatiko prestazioaren oinarri erregulatzaillea kalkulatzeko, erretiroaren aurreko 15 urteetako kotizazio-oinarriak kontuan hartzeaz gain, hirugarren kasuaren barruan 70 urte bete arte atzeratzea erretiroa izan dugu kontuan.

5. laukia. I. eta III. kasua.



Bigarren kasuan ikusitako ezarpenaren gehiketari aurre egiteko, pentsioaren finantzaketaren igoeraren alde, erretiroa hartzeko adina atzeratzea aukera lagungarria suerta dakieke bai Gizarte-Segurantzari, baita pentsio-planei ere. Gizarte-Segurantzarako onuragarria izango litzateke kotizazioengatik diru-sarrerak handituz joango liratekeelako eta onuradunei pentsio-gastuak murriztuko litzazkiekeelako.

6. laukia. Ezarpenak.



- *Gizarte-aurreikuspena esku pribatueta.*

Burututako adibidean aztertu denez, Gizarte-Segurantzaren erretiroagatiko prestazioaren oinarri erregulatuzailearen aldaketak pentsio publikoa murriztu egiten du. Behar bezalako neurriak hartu ezean, eta erretirorako 65 urteko adina mantenduz gero, langilearen prestazio osoa murriztu egingo litzateke. Dena dela, erretiratu eta gero erosteko ahalmenaren parekotasuna mantendu ahal izateko, langileak bere pentsio-planean ezarpen handiagoak egin beharko lituzke, gaurko aurrezkoa txikituz.

Bibliografia

- Barea, J. eta González-Páramo, J. M. (1996): *Pensiones y prestaciones por Desempleo*, BBV, Bilbo.
- Betzuen, A.; Bilbao, A. eta De La Peña, J. I. (1993): *La problemática de la Seguridad Social en el Marco de las Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi*, Finantza-Aktuaritza Ikerketetarako Institutua, Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa eta Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Bilbo.
- Betzuen, A. eta Blanco, F. (1989): *Planes y Fondos de Pensiones: Su cálculo y valoración*, Deusto, Bilbo.
- Betzuen, A.; Gómez, R. E. eta Herrera, A. T^a. (1997): "Beneficio-coste de oportunidad de un modelo financiero de sustitución de un trabajador ocupado por un activo en paro", *IV Congreso de Matemática de las Operaciones Financieras*, Universitat de Barcelona, Bartzelona.
- Boletín Oficial de las Cortes Generales (1995): "Informe de la ponencia para el análisis de los problemas estructurales del sistema de la Seguridad Social y de las Principales reformas que deberán acometerse", *BOE Serie E, 1995-04-12, 134. zenb.*, Madril.
- Boletín Oficial de Estado (1997): "Ley 24/97, de julio, de consolidación y racionalización del Sistema de Seguridad Social." *BOE VII-97*. Madril.
- Carpio, M. eta Domingo, E. (1996): *Presente y Futuro de las pensiones en España*, Encuentro, Madril.
- De La Peña Esteban, J. I. (1999): *Enpresatako Aktiboen Aktuarial Taulak: oinarrizko funtzio biometrikoak, ordezkapen sinboloak*, Finantza-Aktuaritza Ikerketetarako Institutua, Bilbo.
- , (2000a): *Planes de Previsión Social*, Pirámide, Madril.
- , (2000b): *Cotizaciones y Prestaciones del Régimen General y de Autónomos*, Finantza-Aktuaritza Ikerketetarako Institutua, Bilbo.
- Eusko Jaurlaritza. Lan eta Gizarte-Segurantzza Saila (1992): *Gizarte-Segurantzaren prestazio ekonomikoen gida*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu nagusia, Gasteiz.
- Herce, J. A. eta Pérez Díaz, V. (1995): *La reforma del sistema público de pensiones en España*, La Caixa, Bartzelona.
- Ministerio de Trabajo y Seguridad Social (1996): *La Seguridad Social en el Umbral del siglo XXI*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madril.
- Piñera, J. (1996): *Una propuesta de reforma del sistema de pensiones en España*, Círculo de Empresarios, Madril.
- Recio, E. (1996): *El Estado de Bienestar*, Generalitat de Catalunya, Bartzelona.
- Towers Perrins (1996): *Análisis de los sistemas de pensiones*, INVERCO, Madril.

